# ARTISTA BERRIEN XLIV·LEHIA-KETA

**XLIV**
CERTAMEN DE
ARTISTAS NOVELES

**CERTAMEN DE ARTISTAS NOVELES DE GIPUZKOA**
**(44º. 2011. Donostia-San Sebastián)**

Artista berrien XLIV. Lehiaketa / [testuak = textos, Nekane Aramburu]. -
[Donostia-San Sebastián] : Koldo Mitxelena Kulturuneko Erakustaretoa = Koldo
Mitxelena Kulturunea, Sala de Exposiciones ; Donostia-San Sebastián : Kutxa, 2011.
71 p. : fot. ; 21 cm
Catálogo editado con motivo de la exposición realizada en Koldo Mitxelena Kulturunea del 17 de
marzo al 14 de mayo de 2011. - Texto en euskera y castellano

DL XXXX-2011. - ISBN 978-84-7907-655-9

1. Arte - Gipuzkoa - S. XXI - Certámenes.  I. Aramburu, Nekane.  II. Koldo Mitxelena Kulturunea. Erakustaretoa. III. Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián. IV. Título.

7.038(460.154)(083.824)

KM
kulturunea

# ARTISTA BERRIEN XLIV·LEHIA-KETA

**XLIV**
CERTAMEN DE
ARTISTAS NOVELES

**Kodo Mitxelena Kulturunea**
Donostia - San Sebastián

**Erakusketa /** Exposición
2011ko martxoak 17 - maiatzak 14
17 de marzo - 14 de mayo de 2011

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

kutxa

## HITZAURREA /

Gaur egun berrikuntza guztion ahotan dabilenean, aitortu nahi dut badela alor bat berrikuntza bere lehengai nagusi eta bakar bihurtu duena: arte-sorkuntza da hori, bere edozein alderditan.

Ez dago dudarik arte-sorkuntza eta berrikuntza ondorio pizgarriak dituen binomio bat dela beti; izan ere, hartu edozein artista, eta beti iritsiko gara ondorio berera, hau da, benetako berritzailea izan dela, beren garaiari aurrea hartutakoa, historiaren une jakin batean haratago ikusten jakin izan duena. Batzuk intuizio hutsez iritsi dira proposamen berritzaile horietara; beste batzuk, lan sistematiko baten poderioz. Baina kasu batean nahiz bestean horien sorkuntza-lanak garrantzi handiko aurrerapenak izan dira.

Gipuzkoan aukera dugu baieztapen hori guk geuk zuzen-zuzenean egiaztatzeko Artista Berrien Lehiaketan, bi urtean behin **kutxa**k eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen duten ekimenean. Egia esateko, ezinezkoa gertatzen da ez harritzea sortzaileek lehiaketara aurkeztu eta katalogo honetan biltzen ditugun lanekin. Arte-proposamen klasikoen bila datorrena harritu egingo da artista hauen obra edo lanek duten aniztasun eta originaltasunaz. Urteak daramatzagu mestizaiaz hizketan, jakintza-arloen arteko mugak lausotzen dituen joera geldiezin horretaz, baita ere etengabe sartzen diren tresna berriez (teknologiaz…), kontzeptu berriez eta ikuspegi berriez, guztiak ari direlarik sustraitik aldatzen arte-panorama.

Horren haritik, Artista Berrien Lehiaketa lehen mailako erakusleihoa da, arte-sorkuntza esperimentatzen ari den aldaketa sakon hori zuzen-zuzenean ikusi ahal izateko, baita geure inguruan bertan ere. Benetan haize freskoa da, errealitate suspergarri baten aurrean jartzen gaituena, nekez utziko duena inor ez hotz ez bero.

**Xabier Iturbe Otaegi**
**kutxa**ko lehendakaria

## PRÓLOGO /

Hoy que el concepto de innovación está en boca de todos, quisiera reconocer al ámbito que ha hecho de él su principal y única materia prima, la creación artística en cualquiera de sus vertientes.

No cabe duda de que innovación y creación artística constituyen un binomio de consecuencias siempre estimulantes, y es que, pensemos en el artista que pensemos, siempre llegaremos a la conclusión de que han sido verdaderos innovadores, adelantados a su tiempo, que han sabido ver más allá en un momento determinado de la historia. Algunos han llegado a esas propuestas innovadoras por simple intuición, otros, guiados por un trabajo sistemático. Pero, en uno y otro caso, sus creaciones han supuesto un avance de calado.

En Gipuzkoa tenemos la posibilidad de comprobar en primera persona el alcance de esta afirmación con el Certamen de Artistas Noveles que cada dos años impulsan **kutxa** y la Diputación Foral de Gipuzkoa. Lo cierto es que resulta imposible dejar de sorprenderse con las obras que los creadores presentan en este certamen, y que tratamos de recoger en este catálogo. Quien se acerque buscando propuestas artísticas clásicas, se asombrará de la variedad y la originalidad que rezuman las obras de estos artistas. Llevamos años hablando del mestizaje, de esa tendencia imparable que hace que se desdibujen las fronteras entre las diferentes disciplinas y de esa constante incorporación de nuevas herramientas como la tecnología, de nuevos conceptos y de nuevos puntos de vista que están cambiando radicalmente el panorama artístico.

En este sentido el Certamen de Artistas Noveles es un escaparate de primer orden en el que poder asistir en primera persona a ese cambio radical que está experimentando la creación artística, también en nuestro entorno más cercano. Un verdadero soplo de aire fresco que nos sitúa ante una realidad estimulante, que difícilmente puede dejar indiferente.

**Xabier Iturbe Otaegi**
Presidente de **kutxa**

## HITZAURREA /

Bere ibilbide luzean barrena, Artista Berrien Lehiaketa, zeina Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuak sustatzen duen, **kutxa**ren ezin ezkertuzko laguntzarekin, eredugarri bilakatu da bai Estatuan bai Europan, artisten belaunaldi berrien talentuak aurkitu, suspertu eta zabaltzeko duen gaitasunarengatik.

Arte garaikidearen testuinguruan, zeinaren ezaugarria den etengabe aldatu eta esperimentatzea, Artista Berrien Lehiaketaren ezaugarri behinena izan da eraldaketa horietara moldatzen jakitea, baina inoiz ahaztu gabe bere jatorrizko helburua, hau da, talentua antzematea gazteen arte sorkuntzan.

Arrakastatzat hartu behar da lehiaketaren XLIV. edizio honetara iritsi izana, eta arrakasta horrek argi eta garbi irudikatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak harturik duen epe luzeko konpromisoa, gazteenei gogoeta egiten, sortzen eta gizarteari atxikitzen laguntzeko.

Lehiaketa honi esker, belaunaldi berriek aukera ezin ederragoa dute beren sorkuntza lanak Koldo Mitxelena Kulturunea zentroko erakusketa aretoan erakusteko, jakin behar baita arte garaikideko egile ospetsuen ohiko erakusketa-leku dela areto hori.

Gainera, abangoardiako artea hedatzen aitzindariak diren beste zentro batzuen ateak irekitzen zaizkie, Koldo Mitxelena Kulturuneak sustatzen dituen lankidetzako eta ibiltaritzako ekimenei esker.

Lehiaketa honetan sarituak izan direnen artean, nazioartean ospe handiena duten gipuzkoar artista asko daude. Horrek frogatzen digu erakusketa hau egokia dela gazteei beren ibilbidearen hasieran laguntzeko, bultzatzen baitie publikoarekin elkarrizketa aberasgarri bat izatera eta beren zalantzak eta duda-mudak gainditzera.

Zentzu horretan, Gipuzkoako artistek Estatuko eta Europako kultur zirkuituetan duten itzal handia, gure lurraldeko arte-sorkuntzaren bizitasunaren adierazle ezin hobea da. Alabaina, talentu berriak sustatzea da bizitasun horren oinarrizko baldintza.

Erakusketa honetako argitalpenari esker, aukera paregabea sortu zaigu jatorri askotako profesionalei aitortzeko egiten ari diren ekarpen oso baliotsua, beren ekarpen hori erabakigarria izan baita Artista Gazteen Lehiaketaren arrakastan.

Eduardo Chillidak esaten zuen “arteak, egin gabe dagoenarekin duela zerikusia, sortu gabe dagoenarekin. Zutaz kanpo dagoen zerbait da, aurreratuago dagoena eta zuk bilatu behar duzuna”.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, gure gazte talentudunen lankide izaten jarraitu nahi du bilaketa ziragarri horretan. Arte garaikidean barrena bide eta egoera berriak arakatzea bultzatzen jarraitu nahi dugu. Esperimentatzea sustatzen jarraitu nahi dugu, arte sorkuntzaren giza abentura liluragarri honetan.

**Maria Jesus Aranburu Orbegozo**
Kultura eta Euskarako Foru Diputatua

## PRÓLOGO /

A lo largo de su dilatada trayectoria, el Certamen de Artistas Noveles, impulsado por el Departamento de Cultura y Euskera de la Diputación Foral de Gipuzkoa, con la inestimable colaboración de **kutxa**, se ha ido convirtiendo en un referente a nivel estatal y europeo para descubrir, estimular y difundir el talento de las nuevas generaciones de artistas.

En un entorno como el del arte contemporáneo, caracterizado por el cambio y la experimentación permanentes, el Certamen de Artistas Noveles se ha distinguido por su capacidad de adaptarse a estas transformaciones, pero preservando siempre su objetivo original de reconocer el talento en la creación artística de los jóvenes.

El logro de haber alcanzado la presente XLIV edición de este certamen ilustra claramente el compromiso a largo plazo de la Diputación Foral de Gipuzkoa con el apoyo a la reflexión y la creación de los más jóvenes y su acercamiento a la sociedad.

Gracias a este certamen, las nuevas generaciones de artistas cuentan con una maravillosa oportunidad para mostrar sus creaciones en la sala foral de exposiciones de Koldo Mitxelena Kulturunea, que acoge habitualmente muestras de autores consagrados en el panorama del arte contemporáneo.

Y les abre las puertas de otros centros líderes en la difusión del arte de vanguardia, gracias a las iniciativas de colaboración e itinerancia promovidas por Koldo Mitxelena Kulturunea.

La relación de galardonados en este certamen incluye a gran parte de los artistas guipuzcoanos de mayor prestigio internacional. Y ellos nos confirman el valor de esta muestra para apoyarles en los inicios de su trayectoria, ayudándoles a establecer un interesante diálogo con el público y a superar dudas y vacilaciones.

En este sentido, la destacada presencia de artistas guipuzcoanos en los circuitos culturales estatales y europeos es un excelente indicador de la vitalidad de la creación artística en nuestro territorio. Una vitalidad que siempre está íntimamente vinculada a la promoción de los nuevos talentos.

Y la publicación del catálogo de esta muestra nos ofrece una magnífica oportunidad para reconocer la valiosa aportación de todos los profesionales de muy diversas procedencias que vienen contribuyendo decisivamente al éxito del Certamen de Artistas Noveles.

Eduardo Chillida nos decía que “el arte está ligado a lo que no está hecho, a lo que todavía no creas. Es algo que está fuera de ti, que está más adelante y tú tienes que buscarlo”.

Desde la Diputación Foral de Gipuzkoa queremos seguir apoyando a nuestros jóvenes talentos en esta apasionante búsqueda. Queremos seguir estimulando la exploración de nuevos caminos y realidades en el arte contemporáneo. Queremos seguir promoviendo la experimentación en esta fascinante aventura humana que es la creación artística.

**Maria Jesus Aranburu Orbegozo**
Diputada Foral de Cultura y Euskera

## OSPE ETA INDARRA: METAFORA EPISTEMOLOGIKO BAT

**Nekane Aramburu**

### I. Genesia

Gipuzkoako probintziak joan den mendean bizi izan zituen zirkunstantzia politikoak eta sozialak direla-eta, gutxi dira lehiaketen artean Artista Berrien lehiaketaren ibilbide kaleidoskopikoak lortu duen errotze sendo eta sinkronikoa lortu dutenak. Ñabardura emankor, eten iheskor, lorpen esanguratsu, asoziazioz eta disoziazioz jositako lehiaketa horren hasierak eta garapenak, eta askotan ematen ez diren pertsonalitate sutsu horietakoak ematen dituela ere jakinda, ezin bestelako bihurtzen dute lehiaketa hori. Bere argi-ilunak, zuzen eta oker erabakitakoak, jarduera artistiko garaikidearen genealogia baten garapena zehaztu dute, artearen historian gidaliburu eta argibide sozial bihurtzeraino.

Lehiaketa 1917an sortu zen, Foru Aldundiak diru-laguntzak eskaintzeko zuen sistema berregituratu eta berehala. 1920an “Erakusketa” hartu zuen izen, eta 1928az geroztik biurteko bihurtu zen. Artista talde batek hala eskatuta (Elias Salaverriak eta Sebastian Camiok) bihotz- berritzea etorri zitzaion. Izan ere, urriaren 15a idatziz eskatu baitzuten hasierarako data izan zedila, baita Vicente Laffitek ordezkatzen zuen laguntza instituzionala lortu ere, eta halaxe hasi ziren Jauregi Probintzialeko Aretoetan. Lehen edizioetan plano bakarreko pintura gailendu zen nagusi, batez ere Vazquez Diaz inspirazio-iturri hartzen zuten pintura-joeren ondorioz, baina, poliki-poliki, joera hori “hausten” hasi zen, eta hurrengo hamarkadan jada abangoardiako proposamenak modernitatearen ona zabaltzen ari ziren Donostian barrena. 1931ko deialdia bederatzigarrena zen, eta hartan lehen saria jaso zuen Jorge Oteizaren *Adan eta Eva Tangente S=E/A* obrak, porlanez bateratutako giza itxurako formak dituen eskultura lakarrak hain zuzen. Bi urte geroago, Melillan soldaduska egin eta gero, berriz ere garaile izan genuen *Langile hila obrarekin*. 1934. urtearen buelta horretan, proposamen urratzaileak ziren Narkis Balenciagak, Nicolas Lekuonak eta Oteizak osatzen zuten hirukoteak egiten zituztenak. Erakusketak elkarrekin egiten zituzten, eta eskutik ibili ziren, azkenean, zorigaiztoak diasporan banandu zituen arte.

Orduan aipatu zen estreinakoz artista abertzale-iraultzaile talde bat sortzeko gogoa, ordukoak dira ere Gu Elkartea antolatzen hasten diren bilera biziak, eta haren baitara bilduko dira Picasso edota Garcia Lorcaren arreta piztuko zuten joera politiko ezberdineko artistak. Europako joera berriak lekua irabazten hasi ziren hirian, Errepublikaren aurreneko urteetan. Hala ere, Gerra Zibilaren ondorioz, utziezina da apurketa, eta berrogeiko hamarkadara arte ez zaio berriro helduko 59an helmuga duen aldi berriari. Egoera anakroniko bat bizi da guztiz, eta garai hark agerian utziko du hori (Ignazio Deunaren Zirkulua zen sormenaren gotorleku izateari eusten zion bakarra), baina, bien bitartean, lehiaketan erlijio-etno-piktorikoen aldeko obrak ziren nagusi, Francoren Erregimenak nahiago zituen joeren erakusle.

Dena den, eta paradoxiko badirudi ere, berrogeita hamarreko hamarkadan Ur eta Gaur bezalako taldeen abiapuntu izango diren talde-jarrera sortzaileak piztu egingo dira, eta haien sorrerak eta 59. urtetik 77. urtera arte luzatuko den lehiaketaren desagerpenak bat egingo dute. Urte emankorrak dira hala ere, bai artista-elkarteen aldetik bai beste hainbat talde pribaturen aldetik, denak saiatuko baitira sormenerako azpiegitura eta euskarrien gabeziari erantzuna ematen (Ikuskizun eta Turismo Zentroak antolatzen zuen pintura lehiaketa bat baino ez zegoen). Gerora Gaur taldea osatuko zuten sortzaileen pizgarriei esker (batez ere Sistiagaren eta Ariasen ekimenez), Dionisio Barandiaranek sortu zuen Barandiaran Galeria autogestio independentearen adibide ona da, lehen gune alternatibo bihurtu baitzen Espainian oso epe laburrera, baita Gaur taldearen sorrera ekarri ere. Sariketak aldi berri bati ekingo dio 77. urtetik aurrera, eta “Lehiaketa” izena hartuko du, Aurrezkiko Kutxa Probintzialaren laguntzarekin. Horrela, bere planteamenduak ere berritu egingo ziren, eta harez geroztik beti egon da Bilboko Arte Ederretako eta Artelekuko eraginei oso adi, edizio berrietan

# EL PODER Y LA GLORIA: UNA METÁFORA EPISTEMOLÓGICA

**Nekane Aramburu**

## I. Génesis

Debido a las peculiares circunstancias políticas y sociales que se producen en el siglo pasado en la provincia de Gipuzkoa, pocos concursos de arte tienen una raigambre tan carismática y sincrónica con una evolución cultural caleidoscópica como este Certamen de Noveles. La génesis y desarrollo del Certamen, cargado de matices fértiles, fallas erráticas, hitos significativos, asociaciones y disociaciones, con el ingrediente añadido de personalidades arrolladoras irrepetibles, dota al mismo de unos condicionantes excepcionales. Sus claros y sus oscuros, la intensidad de sus aciertos y sus errores han caracterizado la evolución de una genealogía de las prácticas artísticas contemporáneas que de por sí ya lo convierten en un manual de historia del arte, pero también en un documento social.

El concurso tiene su origen en 1917 a raíz de la reestructuración del sistema de becas que estaba otorgando la Diputación Foral, adoptando el nombre de "Exposición" con su inicio en 1920 y transformándose en bienal a partir de 1928. El impulso vino por la solicitud de un grupo de artistas (Elías Salaverría y Sebastián Camio) que en un escrito establecían la fecha del 15 de octubre para su inicio, obteniendo el apoyo institucional de Vicente Laffite con objeto de comenzar en los Salones del Palacio Provincial. En las primeras ediciones con la pintura planista se posicionó como mayor exponente de las tendencias pictóricas en su mayoría inspiradas en Vázquez Díaz para derivar progresivamente hacia una cierta evolución "transgresora" que culminaría en apuestas vanguardistas a comienzos de la siguiente década que expandieron la modernidad por la ciudad de San Sebastián. En su novena convocatoria en el año 1931, Jorge Oteiza ganó el primer premio con la obra *Adán y Eva Tangente S=E/A*, una escultura tosca de formas pseudohumanoides fusionadas en cemento. Dos años después, tras realizar el servicio militar en Melilla, vuelve a ganar con *Obrero Muerto*. Sobre 1934 junto Narkis Balenciaga y Nicolás Lekuona, forman un trío que enarbola propuestas rupturistas, exponiendo conjuntamente y caminando juntos hacia diásporas que finalmente la tragedia haría divergentes.

Se habla de generar un colectivo de artistas nacionalistas-revolucionados, a la par que son los años en los que comienzan a ser intensas las reuniones de la Sociedad Gu, entorno a la cual se conglomeraron creadores de diferentes opciones políticas que atrajeron a intelectuales como Picasso o García Lorca. Las nuevas tendencias europeas se iban aclimatando a la ciudad justo en los primeros años de la República. Sin embargo, con la Guerra Civil, la fractura se hace inevitable y no se retoma hasta los años cuarenta, momento en el que se abre un nuevo ciclo que culmina en el 59, un periodo que pone en evidencia la anacrónica situación del momento, (sólo se mantenía como baluarte de la creación el Círculo de San Ignacio), mientras que el concurso aparecía cargado de obras próximas a las voluntades y obsesiones religioso-etno-pictoricistas reflejo de las tendencias apoyadas por el régimen franquista.

Sin embargo paradójicamente es en la década de los cincuenta donde se empiezan a fraguar actitudes colectivas de creadores que serán el germen de grupos como Ur y Gaur que se activan en paralelo a la disolución del certamen entre los años 59 y 77. Podríamos decir que son años muy fértiles tanto por parte de las organizaciones de artistas como de otros colectivos que desarrollan desde el espacio privado una respuesta a la carencia de infraestructuras y plataformas para la creación (apenas había un concurso de pintura organizado por el Centro de Atracción y Turismo). La Galería Barandiaran promovida por el constructor Dionisio Barandiarán gracias al incentivo de los creadores que darían lugar al grupo Gaur (fundamentalmente Sistiaga y Arias movilizados en primera instancia por la falta de vías adecuadas), es un buen ejemplo de la labor desarrollada por la autogestión independiente, generando el primer espacio

sarituak izan diren asko eta asko arte-tailer horietatik irtendako artistak izan baitira.

## II. Sortu ikusteko / Ikusi sortzeko

Lehiaketak gaur egun oso egitura zehatza erabiltzen du; aurkezten diren proposamenak eta txostenak lehen aukeraketa bat gainditu ondoren, erakusketaren unea iristen da, eta hor, jendaurreko zeremonia ospatzen den anfiteatroan, arteak gizarteratzeko erabiltzen duen *white box* izeneko horretan, hau da, erakusketa aretoan, proiektuen norgehiagoka ematen da. Probeta-espazioa sakrifikatu egiten da obra-krisaliden erakuspenaren alde. Ikusleak, orduan, erakusgarri bat ikus dezake, lagin bat, arte-karrera baten hasiera izan daitekeena, kimeraren eta egiazkoaren arteko desafioa.

Ideiak forma hartzen du, pribatua publiko egiten. Ezaugarri hori, hala ere, oso diluitua eta gainditua dago sorkuntza garaikidean, batez ere lehenengo abangoardiak azaldu zirenetik, haietan proposamenak jaio edo hil egin daitezkeelako pribatua den horretan eta pribatuarengandik hasita, baina egia da erakusketa areto batek duen izaera legitimatzailea mekanismorik praktikoena izaten jarraitzen duela, hura sustatu ahal izateko. Donostiako Koldo Mitxelenako aretoa 1993an jarri zen martxan, eta uharte baten antzera, arte garaikidearen sustapen eta hezkuntzari dagokionean behintzat, bi urtean behin bere ateak irekitzen dizkio hirian lehiaketari 1995az geroztik. Urte hartan, erakusketarekin batera kaleratu ohi den katalogoan, Adelina Moyak historian zehar izan duen garapena aztertu zuen. Orduz geroztik Artista Berrien lanak biltzen dituzten argitalpenak estandar formatu batean egiten dira eta eskualdeko sorkuntzaren garapenaren erakusle moduko bat dira.

## III. Bilakaera

Artista Berrien lehiaketak aldaketa txikiak jasan ditu urte hauetan zehar, bai antolakuntzan bai epaimahaietan. Sorkuntza garaikidearen bilakaerari egokitu egin behar izan zaio. Lan baliabidearen egoerari eta bilakaerari adi egoteak, sektorearekin duen gertuko harremanak, lantresna bizi bihurtu dute inguruan bere eragina indartzeko orduan. Bere azken aldian, aspaldiko jatorri batetik datorren lehiaketa horren bitartez, sortzaile berrien sustapenerako eragingailu berri bat sortu da, unean uneko behar eta formatuekin bat egiten duena. Eta aldi berean izango da behatoki eta irtenbide, artearen testuinguru profesionalean toki bat nahi duen guztiarentzat.

Artista Berrien lehiaketak *American Idol* ezagunaren formatu bera hartzen du, hau da, irabazleak aukeratutako obrarengatik dira irabazle. Baldintzen artean, gipuzkoarra izatea da haietako bat (azken hiru urtetan hala izan dela frogatu behar du behintzat), gaztea izan (35 urtetik beherakoa eta aurreko edizioetan garaile ez izatea), obra taldean edo bakarka aurkeztea eta obra hori sorkuntza garaikideak eskaintzen duen aukera zabalaren barruan egotea. Lurraldetasunaren ideiak bultzada garrantzitsua ematen dio Gipuzkoako sormen-sariari. Sariak obra saritzen du bereziki, baina baita egilea ere, egile horrek ongi baitaki lehiaketan parte hartzera bidali duen obrak lan lehiakorra behar duela izan artearen eremuan eta bere ibilbide profesionalaren adierazgarri.

Erakusketan, balorazio estetiko baten diskurtsoen prestakuntza erakargarriagoa bada ere, prozesuan dagoen proiektua ere ez da bazterrera gelditzen, edota araketa sortzailearen beste diskurtso batzuen sorrera, nahiz eta zenbakitan jartzen zailagoak edota ez hain begibistakoak izan. Erakusketaren eta epaimahaiaren erabakiaren ostean, obraren zabalkundearen aldeko lana egiten da, irabazleen ekarria sustatuz, adibidez, 2009-2010 urteen bitartean egin zen bira baten bitartez, haien lanak, bestek beste, La Casa Encendida (Madril), La Laboral (Gijon) eta Musac (Leon) bezalako aretoetan egon baitziren ikusgai.

## IV. Aditza: artista-izan

Sektorean espezialista izan edo besterik gabe artean interesatua dagoen norbait izan, ezaugarri horiek dituen lehiaketa batera aurkezteko erabakia hartzen duen pertsona bat sortzaile modura ibilbide bati ekiteko gauza dela suposatzen da. Aukeraketa lan

alternativo español en una corta etapa cuyo epicentro fue la constitución de Gaur. Posteriormente, el concurso iniciará una nueva ciclo a partir del 77 pasando a llamarse ya “Certamen”, incorporándose la Caja Provincial de Ahorros en la organización y procurando una renovación permanente de sus planteamientos en consonancia con los ritmos de la creación que han ido oscilando en función de derivas e influencias tanto de la Facultad de Bellas Artes de Bilbao, como mayormente de los talleres desarrollados desde Arteleku, que han sido cantera de muchos de los seleccionados y premiados de las siguientes ediciones.

## II. Crear para ver / Ver para crear

El esquema del concurso hoy se estructura según unas pautas bien precisas; pasada la selección previa de las propuestas y dossieres presentados, es el momento de la exposición para ofrecer la confrontación del proyecto al lugar de lo tangible, en el anfiteatro de la ceremonia pública, la *white box* para la socialización del arte, en definitiva, la sala de exposiciones. El espacio-probeta se inmola a la visibilización de las obras-crisálida. Aquí el espectador puede contemplar un exponente, una muestra, el augurio de una posible carrera artística, el duelo entre la quimera y lo real.

Ahí la idea toma forma, lo privado se hace público. Aunque este hecho en la creación contemporánea es una frontera ya diluida y superada a partir de las primeras vanguardias, desde las cuales las propuestas creativas pueden nacer y morir en /desde lo privado, lo que sí es cierto es que el carácter legitimador de una sala de exposiciones continúa siendo el mecanismo más práctico para fomentarlo. La sala del Koldo Mitxelena de San Sebastián está en funcionamiento desde el año 1993, como una isla en la ciudad en cuanto al fomento y educación en el arte contemporáneo y cada dos años desde 1995 abre sus puertas al certamen. Fue ese mismo año cuando en el catálogo que acompañaba la muestra, Adelina Moya realizó un repaso histórico contextualizando su evolución. Las publicaciones que desde entonces acompañan a Noveles se materializan en un formato estándar y representan un muestrario del desarrollo de la creación regional.

## III. El devenir

Todo el proyecto del Certamen de Noveles durante estos años y a partir, tanto de las sucesivas organizaciones como de los diferentes jurados involucrados, ha sufrido diversos micro-cambios y actualizaciones adaptándose al devenir de la creación contemporánea. Su voluntad de ser permeable con la situación y evolución del medio, de estar próximo y en permanente diálogo con el sector, lo convierten en un instrumento muy vivo y activo afín a la pulsión del entorno circundante. En su última etapa, a partir de un concurso que parte de una evidente raigambre decimonónica, se ha generado un dispositivo para la promoción de los nuevos creadores acorde con las necesidades y formatos del momento. Una plataforma que es a la vez observatorio y soporte para dar salida adecuada a aquellos que pretenden adquirir visibilidad en el contexto artístico profesional.

El Certamen de Noveles se caracteriza por reproducir el formato *American Idol*, donde los elegidos por su obra, son los ganadores. Entre las premisas que prosiguen están la de ser guipuzcoano (o residir en Gipuzkoa al menos durante 3 de los últimos 10 años anteriores), ser novel (menor de 35 y no haber sido ganador en anteriores ediciones), presentarse como colectivo o individuo con obra y abarcar todo el amplio espectro de la creación contemporánea actual en las propuestas enviadas a competición.

El concepto de territorialidad aporta un refuerzo importante a la red creativa guipuzcoana. El premio privilegia la idea de obra pero también la de autor que de una u otra manera es consciente de que la pieza enviada a concurso tiene que ser un trabajo competitivo tanto en el medio de las artes como representativo de su línea de investigación profesional.

En la exposición, aunque es más atractiva la producción de discursos en formato susceptible de una valoración estética a primera

bat onartu eta sariketan lehiatzeko prest egotea sistemak zehazten duen hautaketa naturalaren menpe jartzea da, Arte sistemak zehazten duena alegia, baina jakinda hor aurkitu dezakeela bere ikerketa eta sormen lanak egiteko atea irekiko dion giltza. Lanbide eta bizibide. Orainarekin egindako hitzarmena, etorkizunari begira. Zeremonian parte hartu ahal izateko, liturgia onartu egiten da, eta behin hori onartuta, txosten batean edota obra batean jarritako on ustea eta konfiantza guztia ere onartzen dira, ibilbidearen eta asmatutakoa baina koherentea den diskurtso baten erro bezala. Zurea da erregetza, zurea ospe eta indarra.

Bi liburu daude artearen sisteman sartzeak zer suposatzen duen ongi esplikatzen dutenak, ongi eta gordin. Lehenengoan, 1994an idatzia, Juan Antonio Ramirezek horrela definitzen du artista izatea zer den: “Lanbide bitxia aukeratu duela daki, lanbide arriskutsua, eta inork ez bezala daki berak noraino horrek eskatzen dion zintzo jokatzea bere buruarekin. Normalean, sinesten du berezkoa duen talentuan, baina bere gogoa ezintasun mingotsaren eta poztasun gehiegizkoaren artean astintzen da. Gloriaranzko bidea eragozpen eta arriskuz josia ikusten du: inbidia, krisi ekonomikoa, filistearren munduar txepelkeria eta sentsibilitate falta, etab.”[1] Bestalde, Pablo Helguerak, *Manual de estilo del arte contemporáneo* bere liburuan, artearen ekosistemaren egoera ironikoki azaltzen digu xake joko batean bezala, eta honela definitzen du “Arrakasta”: “Gizarte maila bat da, baina artean hala nahi denean gutxitan lortzen dena, normalena huts eginez lortzen baita. Huts bera behin eta berriro errepikatzeak arrakasta biderkatu egin dezake. Bitxiagoak diren beste kasu batzuetan, artista on bat artista arrakastatsua ere izan daiteke”.[2] Gure Artea, Araba Gaztea, Vitoria-Arte Gasteiz, Getxo Arte, Ertibil edota hau bezalako lehiaketa horiek euskal artearen panorama berria eraikitzeko izan duten eragina nolakoa izan den oraindik ez badakigu ere, saiatuko gara ondorio batzuk ateratzen.

2009ko lehiaketarako egin zen katalogoan, nabarmentzen ari den artistaren egoeraz eta mestizajearen, diziplina-aniztasunaren eta nahitaezko nomadismoaren garai honetako mekanismoek adierazten dutenaz zerbait esaten saiatu nintzen. Nire ikerketak honako kezka hauek azpimarratzen zituen: Arrakasta-Porrota, Gazte-Beterano, Erakutsi–Eraginpean jarri eta Lokala-Globala. Orain, 2008ko krak ekonomikoak bere hariak hedatu dituen oraingo honetan, ustez oinarri sendoak zituzten arteen dispositiboak apurtuz eta gero eta eskasagoa eta hauskorragoa den sektore bati min emanez, ezinbestekoa da arteentzako etorkizun berri bat zainduko duten oinarriak finkatzea, eta, horretarako, estrategiak eta harrobiak berregituratu egin beharko dira. Graham Greenek, *The Power and the Glory* bere nobelan, apaiz baten gatazka etiko, moral eta psikologikoak agerian uzten zizkigun une historiko konplexu batean, horregatik esan dezakegu, eta oker aritzeko beldurrik gabe, koherentzia-etika maila bati eustea fede handiko eta arrisku handiko abentura bat dela.

## V. Leinu eta belaunaldiei buruz

Ez da historiografia hutsagatik bakarrik, baina Arteak atsegin ditu etiketak eta marka esanguratsuak. Komunikabideetan arrakasta gehien lortu zuena Young British Artists “Britaniar Artista Gazteek” edo YBAk aldarrikatu zutena izan zen, gehienak Londreseko Goldsmith College of Arts eskolakoak. Ondorioz, YBA adierazpen historiko bihurtu zaigu, nahiz eta orain Damien Hirst bezain aguretxoak izan. Eta bide horretatik abiatuta, modu batera edo bestera, hamaika hitz eskaini zaizkio euskal arteari, eta, aldi berean, kondaira moduko bat sortzen joan da haren inguruan, Oteiza bezalako patriarken eta haren jarraitzaileen eta haren dizipulu nolabait transgeniko edo protozelularren eskutik, nahiz eta hori guztia oraindik ere aztertzeko egon. Horregatik iruditzen zait gazteen kartografia bat eginez gero, euskal artisten belaunaldi berria gaur non dagoen lekutzen eta aztertzen hasi gintezkeela ongi.

Globalizazioa eta kultura-aniztasuna dauden honetan ezin hasi gaitezke gure gertuko sortzaileentzako labela bilatzen, hemen jaio edo hemen bizi direnak, hemen egon edo hemendik pasatzen direnak,

vista, también lo es la del proyecto en proceso o la de otros discursos de exploración creativa menos cuantificables o tangibles que son apoyados de igual manera. Contribuyendo a su difusión, tras la exposición y fallo por parte del jurado, desde la última convocatoria se ha incentivado la promoción de los ganadores realizando un tour de presentaciones durante el 2009/2010 que, por ejemplo, llevó a los mismos hasta La Casa Encendida (Madrid), La Laboral (Gijón) y Musac (León).

## IV. El verbo: ser-artista

Obviamente entendemos, y me refiero tanto a los especialistas del sector como a cualquier ciudadano interesado por el arte, que si una persona decide presentarse a un concurso de estas características, se considera preparado para afrontar y desarrollar una carrera profesional como creador. Aceptar una selección y optar a un premio es una manera de someterse a la criba natural establecida por el sistema; un sistema, el del Arte, que está dispuesto a otorgarle la llave que puede permitirle desarrollar sus labores de investigación y creación. También una profesión y un medio de vida. Un pacto en el presente con miras al futuro. Para acceder a la ceremonia, se acepta la liturgia y con ella, los actos de fe y de confianza depositados con el sólo testimonio de un dossier o de una obra en exhibición, de un supuesto trazo de trayectoria y de un discurso intuido como coherente. *Tuyo es el reino, el poder y la gloria*.

